

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Iragarkia, Eltziegoko udalerrian dauden bizitegi eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketa behin betiko onesteari buruzkoa

Udalaren osoko bilkurak, 2020ko ekainaren 16an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion bizitegi eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketari. Aldaketa jendaurrean jarri zen, 2020ko uztailaren 20ko ALHAOn (81. zk.) eta udaletxeko iragarki oholean argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zen inolako erreklamaziorik egin. Hori dela eta, behin betiko onesten da, eta testu osoa argitara ematen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Erabaki honen eta ordenantzaren aldaketaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dute interesdunek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan ezarritakoarekin.

Ordenantzaren aldaketak hau dio hitzez hitz:

“8. artikulua. Eragina zirkulazio elementuetan: korridoreak eta eskailerak.

Igogailua jartzeak egun dauden korridoreen eta eskaileren zabalera aldatu beharra ekar dezake; dena den, korridoreek eta eskailerek ezin izango dute inola ere 1,10 metro eta 0,80 metro baino gutxiago eduki, hurrenez hurren. Bestela, elementu horiek irisgarritasun araudian eta Eraikinen Kode Teknikoan ezarritako parametro orokorretara egokitu beharko dira.

Korridoreen bat 1,10 metro zabal ez bada, zabalera horri eutsi ahal izango zaio igogailua instalatutakoan.

Salbuespen gisa, korridoreak 80 cm-ra murriztu ahal izango dira, baldin eta lehendik dauden atariak eta komunikazio guneak kanpoko lurzorua okupatzea saihesten bada.

Salbuespen hori ezingo zaio aplikatu etxebizitzetara sartzeko eskailera buruari. Ezin izango dira inola ere murriztu etxebizitzetara sartu aurreko eremuaren neurriak Gainerako eskailera buruak 1,10 metroko zabalera izan ahalko du gutxienez, baldin eta, horrekin, lehendik dauden atariak eta komunikazio guneak kanpoko lurzorua okupatzea saihesten bada. Bestela, parametro orokorretara egokitu beharko da.”

Eltziego, 2020ko irailaren 11

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE